

# getxoBerri



**Doako alea**  
1435 zb.  
www.getxo.eus  
getxoberri@getxo.eus  
Abenduak 22 >> Urtarrilak 1 | 2016

## / Nabarmentzekoak

- > Turkian, Jordanian, Yemenen, Ankaran eta Berlinen izandako atentatuen gaitzespena (2. or.)
- > Pertsona zaintzaileak laguntzeko tailerretako talde berriak (2. or.)
- > Haurrentzako antzerkia Gabonetan (3. or.)

**Begoña Fernández eta Uribe Kosta elkarteak, urteko pertsona eta entitate boluntarioak** (4. or.)



**Erakusketa.** Hilaren 22tik aurrera, Algortako Kultur Etxean, Joserra Zubiaurren olio eta akrilikoen erakusketa. Urtarrilaren 11ra arte.

**Gabonetako kontzertuak.** Abenduaren 22an eta 23an, Algortan eta Areetan.

**A-GENDA**

## Getxolandia abian eta dena prest Olentzeroren etorrerako

Getxolandia, Gabonetako Haur Parkeak, ostiral honetan, abenduaren 23an, zabalduko ditu bere ateak. Bien bitartean, Olentzeroren etorrerako, udalerriko kaleetan eta etxeetan dena dago prest.

Getxolandia atrakzioak urtarrilaren 5era arte izango dira Areetako Gelto-kiak jendeak erabiltzeko. 1 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei dago zuzenduta gabon parkearen eskaintza: igela, dragoia, zaldiko-maldikoa, txoke-autoak... hainbat atrakzio egongo dira txikientzat, eta horiekin batera puzgarriak, ohe elastikoak eta abar eskainiko dira egun horietan. 16:00etatik 19:00etara egongo da irekita, eta abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean, berri, itxita egongo da.



**Edukiontzia marroia 2017ko lehen lauhilekoan ezarriko da eta hura irekitzeko txartela eskatu ahal da dagoeneko**

## Getxo hasi da HHSen edukiontzia berritzen

Udala hasi da herriko edukiontzia berritzen. Guztira, 1.789 edukiontzia berri dira ipiniko direnak: urdinak (papera/kartoia), horiak (ontziak), marroiak (organikoa) eta errefusa botatzeko edukiontzia; helburu horretarako egokituko diren 422 irla edo tokitan banatuta egongo dira. Irla batzuetan edukiontzia berdea (beira) eta laranja (landare-olioa) ere egongo dira. Edukiontzia marroia otsailaren amaiera aldera ezarriko da eta aurreikusita dago guztiak 2017ko lehen lauhilekoaren amaierarako ipinita egotea. Eta, horretarako, hura irekitzeko txartela eskatu ahal da dagoeneko. Aurreikusita dago paper, ontzi eta errefusaren edukiontzia urtarrilaren amaierarako guztiak ipinita egotea.

Edukiontzia berrien diseinuak irisgarritasun unibertsala betetzen du eta haien konposizioa dela eta, kargatzean eta deskargatzean sortzen den zarata eta, oro har, inpaktuak (CO<sub>2</sub>, ur- eta energia-kontsumoak, bistakoak) txikitzen dira. Auzotarrek, ahalik eta hondakin kopuru handiena bidaia bakar batean uzteko aukera izango dute. Kasu gehienetan, erabiltzaileen eta edukiontzien arteko tartea laburtuko da, baita edukiontzia bakoitzeko biztanle kopurua ere.

Antolamendu berriekin, edukiontzien guneak homogeneizatu dira, hemendik aurrera guztietan, gu-

txienez, 4 edukiontzia egongo baitira: organikoarena, paperarena, ontziena eta errefusarena. Beste irla batzuetan, 5 izango dira (beirarena barne), edo 6 (olioarena sartuta). Horren ondorioz, zenbait gunetan trafikoa berrantolatu behar izan da, esate batera, Lañomendi eta San Nikolas aldeetan, Algortan. Bestalde, Zugatzarten eta Negurin, egun dauden edukiontzia berberak utziko dira, alde horietan etxez etxeko bilketa zerbitzua ezarri nahi baita; hori dela eta, aurrera segitzen dute bilerak finken administratzaile eta auzotar-ko-

munitateekin, horien kezka eta proposamenak ezagutzeko.

"Horrekin guztiarekin, eta eskaintzen ditugun gainerako zerbitzuekin (inausketa eta tamaina handiko hondakinak; etxeetan eta ostalaritzan erabilitako olioak; eta arrandegi, supermerkatu eta fruta-denda atarietako bilketa), gure eguneroko bizitzan sortzen ditugun hondakinak sailkatzeko lana errazten da, baita Getxoko etxeek hondakinen hautaketa eta bereizketa efizienteagoa egitea ere. Eta horretarako, berriro diogu, guztion laguntza ezinbestekoa da", azaldu du Imanol Landa alkateak.

**Informazio-liburuxkak botako dira gutunontzietan**

Edukiontzia berritzearekin batera, liburuxka bat botatzen ari da gutunontzietan, edukiontzia bakoitzean zer material utzi daitekeen gogoratuz. Eta bideo bat ere editatu da, modu integratuan proposatzen den zerbitzua laburtzen duena, eta udal webgunean ikus daitekeena: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus).

**Edukiontzia marroia**

Zerbitzua 2017ko lehen lauhilekoan ipiniko da martxan, txartel sistemaren bitartez. Txartelarekin edukiontzia ireki eta hondakinak bota ahal dira. Zerbitzu berria erabiltzeko interesa duten auzotar eta ostalariek alta hartu ahal dute zerbitzuaren web orrialdearen ([www.getxo.info-citi.es](http://www.getxo.info-citi.es)) bitartez edo 94 464 43 80 telefonoaren bitartez -informazio guzti hori banatzen ari den liburuxkan sartuta dago-.

Edukiontzia marroia nola erabili eta bertara zer nolako hondakinak bota jakiteko, informazio- eta heziketa-kanpaina ere egingo da, otsaila aldera. Kanpaina honen ekintzetako bat izango da zerbitzu berriaren alta hartu duten pertsonekin harremanetan jartzea, informazioa eta zerbitzua erabiltzeko beharrezkoa den txartela emateko.





### ABENDUAK 22 OSTEGUNA

**Erakusketa.** Algortako Kultur Etxean, Joserra Zubiaurren olio eta akrilikoen erakusketa. Urtarrilaren 11ra arte.

**Gabonetako kontzertuak.** Areetxoren emanaldia. 20:00etan Santa Anako parrokian (Areea). **Getxon Zuzenean.** Romoko Kandilejas tabernan, 20:00etan, Kuenta Atrás (rock). Sarrera dohainik.

### ABENDUAK 23 OSTIRALA

**Olentzero.** 3. orrialdean. **Getxolandia.** Areetako Geltokia plazan urtarrilaren 5era arte. Sarrera: 3,50€ (5 bidaia). 11:00-14:00 eta 17:00-21:00; abenduarren 24an eta 31n eta urtarrilaren 5ean: goizez eta 16:00-19:00; abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean: itxita.

**Gabonetako kontzertuak.** Areetxo eta Irutasun abesbatzen emanaldia. 20:00etan Trinitarioen elizan (Algorta). Kalejira. Zozoak Abesbatza Areetako kaleetatik. 20:00etan.

**Zine-kluba.** "The lady in the van", 21:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Zuzendaria: Nicholas Hytner. Adin guztientzat. Salneurria: 2,90€.

### ABENDUAK 24 LARUNBATA

**Olentzero.** 3. orrialdean.

### ABENDUAK 26 ASTELEHENA

**Gabonak Kultur Etxean.** Haurrentzako tailerrak Romoko Kultur

Etxean. 11:00-13:00 eta 17:00-19:00. Euskaraz eta gaztelaniaz.

**Kontzertua.** Antonio Garamendiren "Desert plains" diskoaren aurre-aurkezpena. 20:00etan Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Sarrera: 20€ (CD barne).

### ABENDUAK 27 ASTEARTEA

**Gabonak Kultur Etxean.** Haurrentzako tailerrak Romoko Kultur Etxean. 11:00-13:00 eta 17:00-19:00. Euskaraz eta gaztelaniaz.

### ABENDUAK 28 ASTEAZKENA

**Gabonak Kultur Etxean.** Haurrentzako tailerrak Romoko Kultur Etxean. 11:00-13:00 eta 17:00-19:00. Euskaraz eta gaztelaniaz.

**Haur antzerkia.** "Titirikontu kontari" Gorakadarekin (euskaraz; 3-7 urte). Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan. Sarrera: 5€.

### ABENDUAK 29 OSTEGUNA

**Gabonak Kultur Etxean.** Haurrentzako tailerrak Romoko Kultur Etxean. 11:00-13:00 eta 17:00-19:00. Euskaraz eta gaztelaniaz.

**Haur antzerkia.** "Pinocchio" La Baldufurekin (gaztelaniaz; 6 urtetik gorakoentzat). Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan. Sarrera: 5€.

**Getxon Zuzenean.** Areetako Glass tabernan, 20:00etan, Jazz Ciudad (jazz). Sarrera dohainik.

### ABENDUAK 30 OSTIRALA

**Gabonak Kultur Etxean.** Haurrentzako tailerrak Romoko Kultur Etxean. 11:00-13:00 eta 17:00-19:00. Euskaraz eta gaztelaniaz.

**Zine-kluba.** "Mustang", 21:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Zuzendaria: Deniz Gamze Ergüven (7 urtetik gorakoentzat). Salneurria: 2,90€.

25 (IG) 09:00-13:30: BAYANO. Ibaigane 9, Areea.

09:00-22:00: JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

31 (LR) 09:00-22:00: JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

22:00-09:00: ESQUISABEL. Algortako etorbidea 32.

01 (IG) 09:00-13:30: EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

09:00-22:00: MONASTERIO CANTABRANA. Villa de Plentzia 4, Romo. JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

22:00-09:00: ALZOLA. Arene 4, Algorta.

Emozio Laguntza. Konpromisorik gabeko kontsulta 617 56 97 33 telefonoan.

- **Bi pertsona behar dira** txintxon kartetako jolasean aritzeko, ostiraletan eta larunbatetan Algortan. Tel.: 635 806 619.

- **Neska** txosten eta eskarmen-tuarekin prest dago etxeko lanak eta adinekoak zaintzeko (gazez ere). Tel.: 635 806 619.

- **Etxeak garbitzen** lan egingo nuke, goizez. Getxoko neska, esperientziaduna. Tel.: 622 822 390.

### GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK ABENDUAREN 22TIK URTARRILAREN 1ERA ARTE

Egunero 2016an:

ESQUISABEL. Algortako etorbidea 32.

Hurrengo farmaziak asteburuetan ere zabalik egongo dira:

24 (LR) 09:00-22:00: ANDRACA. Maidagan 61-A, Andra Mari. JIMENEZ. Illeta 12, Algorta. EZQUERRA. Ollarretxe 27, Algorta.

22:00-09:00: ESQUISABEL. Algortako etorbidea 32.

### LANPOLTSA SALEROSKETA GALDUTAKOAK

- **Matematika** eta estatistika eskolak maila guztietan, lizentziatuak etxetik eman dakoak. Berehalako emaitzak. Tel.: 647 17 39 72.

- **Gizarte Lanean Diplomatuak:** Zerbitzu profesionalak pertsonalizatuak, Laguntzaile Pertsonala, Laguntza, Aholkularitza,

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukiaren egiazkotasunaren erantzule izango.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri Getxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikaziozko zinegotzia: Amaia Agirre. Zuzendaria: Javier García. Erredaktoreburua: Itziar Aguayo. Erredakzioa: Nekane Ardanza,

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel.: 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxoberri@getxo.eus Arte arduradunak: Flash Composition SL Inprimaketa: Editorial Iparraguirre S.A. Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua Gordailu legala: BI-388-87



## Turkian, Jordanian, Yemenen, Ankaran eta Berlinen izandako atentatuen gaitzespena

Udalan ordezkaritza duten alderdi politikoetako partaideek bat egin eta parte hartu zuten EUDELeK, Euskal Udalerrien Elkarteak, batetik, joan den asteburuan Turkian, Jordanian eta Yemenen, eta bestetik, astelehenean Ankaran eta Berlinen izandako atentatuak gaitzesteko deitutako isilezko elkarretarazteetan. Aurrekoetan bezala, bost minutuz, indarkeria terroristaren kontra azaldu ziren eta biktimekin eta euren senitartekoekin elkartzuna adierazi zuten.

## Pertsona zaintzaileak laguntzeko tailerretako talde berriak

Datorren abenduaren 30era arte zabalik egongo da Udalak zaintzaileentzat antolatutako erlaxazio eta taldeko laguntza psikologikoko tailerren bi talde berrietarako izena emateko epea. Doako tailer horien helburua da Bizkaiko Foru Aldundiak udalerrian mendekotasun egoeran egiaztatutako bizi-lagunak zaintzen dituzten familiarrei laguntza eskaintzea; eta aipatutako erakundearekin indarrean da goen Zainduz hitzarmenaren barruan kokatzen dira. "Izandako eskaera handiaren aurrean, oraingoan, tailerren ordu kopurua han-

ditu dugu eta gainera bakoitzaren bi talde antolatu ditugu, biak Algortan zein Romon egin ahal izateko", azaldu du Elena Coriak, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak. Erlaxazio tailerren iraupena 19,5 ordukoa izango da. Romon egingo den taldearen saioak asteartean izango dira, datorren urtarrilaren 10etik apirilaren 4ra bitartean, 10:00etatik 11:30era, Boluntarioen egoitzan, Romoko Jose María Chavarri Zuazo plazan. Bestalde, Algortako taldearentzako klaseak Urgull kaleko udal eraikinean izango dira, urtarrilaren 13tik apirilaren 7ra, 11:00etatik 12:30era.

Taldeko laguntza psikologikoaren ikastaroaren iraupena 24 ordukoa izango da. Klaseak astelehenean izango dira, urtarrilaren 9tik martxoaren 27ra bitartean, 10:00etatik 12:00etara, Romoko Boluntariotza Zentroan ere. Algortan, saioak asteazkenean izango dira, urtarrilaren 11tik martxoaren 29ra, 10:30etik 12:30era, Urgull kaleko udal eraikinean ere. Izen-ematea udalerriko Hiritarren Arretarako Bulegoetan egin beharko da. Informazio gehiago 94 4660151 telefono zenbakian.

## Etxeko Segurtasunari buruzko II. Kanpaina, abenduaren 26tik 30era

Udalak Etxeko Segurtasunari buruzko II. Kanpaina antolatu du, abenduaren 26tik 30era. Egun horietan su-itzalgailuaren erabilerari buruzko informazio

saioak izango dira udalerriko hiru tokitan, orduetegi desberdinetan, "suteak prebenitzea oso garrantzitsutzat jotzen dugulako, bereziki data hauetan, etxeetan Ga-

bonetako apaingarri ugari jartzen direlako, berogailuaren erabilera handia izaten delako, tximiniak pizten direlako...", azaldu du Keltse Eigurenek, Herritarren Segurtasunerako zinegotziak.

Saioetan erakutsiko da benetako suarekin su-itzalgailua nola erabili eta baita etxeko, komunitateko edo auzoko prebentziorako argibideak azaldu ere. Parte hartzen duten pertsonak egiaztagiri sinboliko bat jasoko dute, udalak horren bitartez herritarrek beren babesean parte hartzeko kontzientziatzea nahi duelako.

### Saioen ordutegia

\* **Areetako Geltokia Plazan:** abenduaren 26an eta 27an, 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.

\* **Algortako Geltokia Plazan:** abenduaren 28an eta 29an, 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.

\* **Portu Zaharreko aparkalekuan:** abenduaren 30ean, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara..

Saioak doakoak izango dira eta ez da aurretik izena eman behar.



## Getxon gozatzeko Planak 2017 egitasmoari atxikitze epea

Getxon gozatzeko Planak 2017 egitasmoan txertatu nahi duten enpresa getxotarrak Turismo Bulegoarekin harremanetan jar daitezke (tel.: 94 491 08 00 eta [infoturismo@getxo.eus](mailto:infoturismo@getxo.eus)).

Euskarri horretan bildutako eskaintza turistikoak bertako 210 enpresaren eskaintza sustatu eta zabaltzen du, eta bere helburua honako hau da: bate-tik, baliabide ezagunagoen aurrean aukeran beste plan batzuk proposatzea, "xarmadunak", Getxo dagoeneko ezagutzen duten bisitari eta txangozaleak anima daitezzen udalerrira berriro etortzera; eta bestetik, udalerrira etorritako turista eta bisitarien egonaldia luzatzea. Horren guztiaren helburua bertako enpresetan eta Getxo osoan eragin ekonomiko handiagoa lortzea izanik.

## \* K.Orbe eta A.Goirik Best Lawyers saria jaso dute.

Kenari Orbe eta Alfonso Goiri abokatu getxotarrak Best Lawyers © izeneko saria jaso dute, izen bereko Estatu Batuetako aldizkari nabarmenak emandakoak. Lehenak sari bikoitza jaso du, hau da, laugarren saria jarraian Auzien kategorian eta lehena Higiezin-Zuzenbidean. Bigarrenak, bigarrena eskuratu du familiarren zuzenbidean egindako lanagatik. Abokatuaren Oskar saritzat hartuta, goaipamen hauek abokatuaren azken urtearen lanaren esker ona dira, nazioarteko mailan zuzenbidearen alor desberdinetan.



## Olentzero kalejirekin eta jarduerekin helduko da Getxora

Aurtengo Gabonetan ere Olentzero Getxora helduko da eta bere kaleetatik ibiliko da txikienen ikusminaren aurrean, jarduera egitarau zabalarekin. Pasa den asteburuan Neguri bisitatu zuen, eta orain gainontzeko auzoetatik pasatzea geratzen zaio, horietan ere ilusioa eta opariak banatzeko

### Algorta

Antolatzailea: Horra Horra Algortako Olentzero Batzordea.

#### abenduak 23

19:00: umeen bertso saioa San Nikolas plazan.

20:00: Taberna Ibiltaria taldearen kantuak.

#### abenduak 24

12:00: umeentzako tailerrak, puzgarriak. Geltokia plazan.

17:30: Olentzeroren kalejira Benantziotik hasita.

19:00: txokolatada, txalaparta, bertsolariak...

### Areeta

Antolatzailea: Berantzagi Dantza Taldea.

#### abenduak 23

17:00: tailerrak, puzgarriak, magia Eskoletako plazan.

18:30: Pepa Ta Kutxo pailazoak Eskoletako plazan.

#### abenduak 24

11:00: irudi eta erakusketak zabaltzea eta erromeria Eskoletako plazan.

11:30: Olentzeroren harrera Bizkaiko Zubian. Umeen-tzako Pintura lehiaketa Eskoletako plazan.

12:15: Berantzagi Dantza Taldearen emanaldia.

13:00: bertsolariak. Algortako Bertsolari Eskola (ALBE).

18:30: kalejira eta Berantzagi Dantza Taldearen emanaldia.

### Andra Mari

Antolatzailea: Itxas Argia Dantza Taldea.

#### abenduak 23

18:00: txitxiburduntzia, txitulariak, trikitilariak, eta fanfarria Malakate parkean.

#### abenduak 24

17:00: kalejira: sua Malakaten, musika, dantzak,...

### Romo

Antolatzaileak: Zasi Eskola Dantza Taldea, Ziztu Bizian eta Romoko jai batzordea.

#### abenduak 23

17:30: Tailerrak eta Olentzeroak umeen eskutitzak hartuko ditu San Jose elizako arkupeetan.

20:00: trikipoteoa.

#### abenduak 24

12:00: umeentzako tailerrak

13:30: trikitilariak eta txitulariak

17:30: Kalejira, dantzak, Gabonetako abestiak, gozoki-banaketa, dantzak, txokolatada eta Olentzero erretzea.

Olentzeroren ibilbideak ezagutzeko [www.getxo.eus/euskara](http://www.getxo.eus/euskara) webgunera jo daiteke.

## Gabonak Kultur Etxean

Romoko Kultur Etxeak haurrentzako tailerrak antolatu ditu abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra, euskaraz eta gaztelaniaz. Aurretik izena ematea beharrezkoa izango da (Lope de Vega, 12. Tel.: 94 464 91 33). Kopurua mugatua izango da. Egunero ekitaldi batzuk egingo dira (11:00-13:00/17:00-19:00. 3-7 urte).

### Astelehena, 26

11:00-13:00, TXIKI-TXEF SUKALDARITZA TAILERRA (5-12 urte)

17:00-19:00, TXOTXONGILO ARTIKULATUAK (3-12 urte).

17:00-19:00, APAINGARRI KRISTALDUNAK (6-12 urte).

### Asteartea, 27

11:00-13:00, TXIKI-TXEF SUKALDARITZA TAILERRA (5-12).

17:00-19:00, PLASTILINA EGITEN (3-12 urte).

17:00-19:00, FANTASIAZKO POSTALAK (6-12 urte).

### Asteazkena, 28

11:00-13:00, TXIKI-TXEF SUKALDARITZA TAILERRA (5-12).

17:00-19:00, INTXAUR-OSKOLEZ EGINIKO ITSASONTZI TXIKIAK (3-12 urte).

17:00-19:00, PLASTILINA EGITEN (6-12 urte).

### Osteguna, 29

11:00-13:00, TXIKI-TXEF SUKALDARITZA TAILERRA (5-12).

17:00-19:00, ELURREZKO PANPINAK (3-12 urte).

17:00-19:00, AHO BETE LIBURU (6-12 urte).

### Ostirala, 30

11:00-13:00, TXIKI-TXEF SUKALDARITZA TAILERRA (5-12).

17:00-19:00, FANTASIAZKO MOZORROAK (3-12 urte).

17:00-19:00, ELUR-JAUSIA (6-12 urte).

### Astelehena, 2

11:00-13:00, TXIKI-TXEF SUKALDARITZA TAILERRA (5-12).

17:00-19:00, GABONETAKO TXAPAK (3-12 urte).

17:00-19:00, 2D PINUA (6-12 urte).

### Osteartea, 3

11:00-13:00, TXIKI-TXEF SUKALDARITZA TAILERRA (5-12).

17:00-19:00, NENUFAR MAGIKOAK (3-12 urte).

17:00-19:00, MEZU EZKUTUA (6-12 urte).

### Asteazkena, 4

11:00-13:00, TXIKI-TXEF SUKALDARITZA TAILERRA (5-12).

17:00-19:00, GABONETAKO ZUHAITZA (3-12 urte).

17:00-19:00, IMITAZIOZKO BITXIAK (6-12 urte).

## Haurrentzako antzerkia Gabonetan



Datorren astean haurrentzako bi antzerki saio eskainiko dira Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, biak 18:00etan. Sarreraren prezioa 5 eurokoa da.

Asteazkenean, hilak 28, Gorakada konpainiak *Titirikontu kontari* antzeztuko du euskaraz. Bereziki 3-7 urte bitarteko umei zuzenduta, ikuskizun poetikoa, dibertigarria, arina eta ausarta da, ipuin-kontalarien ahotsak eta txotxongiloak uztartzen dituena. Taldeak berak sortutako antzezlan da Ricaro Combik landutako testuak ditu eta *Zapataria eta iratxoak*, *Barbantxo* eta *Urretxindorra* ipuinetan oinarrituta dago.

Ostegunean, hilak 29, La Baldufa Teatrek *Pinocchio* taularatuko du; antzezlana hau Carlo Collodiren jatorrizko testuaren eurek egindako interpretazio berezia da, eta gogoeta egiten laguntzen digu zenbait balorearen inguruan, hala nola, zintzotasuna, ardua, ekina eta heziketa. Pinocchio ume bihurria da baina, aldi berean, oso sineskorra. Geppetto, aita baten zuhurtziaz, haurraren heziketaz zeharo arduratuta dago. Pinocchio hainbat abenturatan nahastuko da hazten eta heltzen doan bitartean.

## Antonio Garamendiren kontzertua

Getxoko talentu berriak sustatze aldera, datorren astelehenean, hilak 26, Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, Antonio Garamendiren bigarren diskoaren aurre-aurrezpena egingo dute, *Desert Plains* izena duena. 1986an jaioa, oso goiz hasi zen pianoa jotzen eta abestiak egiten. Ordutik, hainbat taldetan eta proiektutan egon da. Horiatariko bat, *Dynamo* sariduna,

irabazlea izan zen Euskadi Gazteak antolatzen duen maketa-lehiaketan, Heineken Greenspacen finalista izan zen eta Mondosonorok sortzen ari zen Bizkaiko talde onena izendatu zuen. Gainera, Udalak emandako 2016ko AixeGetxo saria lortu zuen, Kultura arloan etorkizun handiko gaztea izateagatik.

Sarrera: 20€ (CD barne).



### “Detrás de los salsifíes” argitaratu dute

Kultur Etxearen Sortze Idazketaren tailerreko ikasleek *Detrás de los salsifíes* aurkeztu berri dute. Bertan Monica Crespok zuzentzen duen taldeak erakusten digu ikasturtean zehar idatzitako ipuin onenen bilduma; 22 istorio, non egile bakoitzak desioak eta frustrazioak, mundu errealak eta fantastikoak, umorea eta izua... azaltzen dituen. Ediciones Civicas-ek argitaratu du eta udal liburutegiek maileguan ere eskaintzen dute.

# Begoña Fernández eta Uribe Kosta elkarteak, urteko pertsona eta entitate boluntarioak

Begoña Fernández Aguirre eta Uribe Kosta buru minusbaliotasuna duten pertsonen aldeko elkarteak jaso dute urteko pertsona eta elkarte boluntarioaren sariak, hurrenez hurren, SAREKIDE Getxoko entitate boluntarioen elkarteak emanda, Udalaren laguntzarekin Getxo Elkartegian ospatutako ekitaldian. Boluntariotza Topaketan Juanjo Quiñones SAREKIDEko burua, Imanol Landa Getxoko Alkatea, Elena Coria Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia eta Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ordezkariak izan ziren, besteak beste.

## Uribe Kosta elkarteak

Uribe Kosta elkarteak lan egiten ari da buru minusbaliotasuna duten pertsonak eta beraien familiak beren bizitza proiektua kalitatearekin garatzeko, elkarte justuago eta solidarioan eskubide guztiekin gizarteratzeko. Oraingoan, Astia eta Partaidetza Sozialaren programaren barruko *Denok boluntarioak izan gaitzke* programatik jaso du saria. Horrek pertsona hauek gizartean eragile aktibo gisa parte hartzeko duten eskubidearen alde lan egiten du, eta ez soilik zerbitzuen jasotzaile gisa. Ildo horretan, buru minusbaliotasuna dutenek hainbat jardueratan hartu dute parte (azoka eta lasterketa solidarioan...) eta



Vicente Ferrer Fundazioarekin kolaboratu dute.

## Begoña Fernández

Begoña Fernández Aguirre Gizatiar elkarteak boluntarioa da eta duela 15 urte baino gehiagoz geroztik emakumeen gizarterako jabekuntzaren alde,

eta sexu erasoen eta genero indarkeriaren aurka lan egiten ari da. 2015etik Bizkaiko Foru Aldundiaren eragilea da Romon, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei laguntzen, hain zuzen ere, laguntza eskatzen duten genero biktimei. Gainera, urtero, azaroaren 25ean Emakumeenganako indarkeria-

ren kontrako Egunean antolatzen den elkarretaratzearen antolaketan hartzen du parte boluntarioak.

Begoña Fernández zurrumurruren kontrako agentea izateaz gain, Udalak antolatutako Immigrazioko eta Berdintasuneko Foroetan ere hartzen du parte.

## KIROLAK



### Gabonetako VII. Itsas Lasterketa

Urtero bezala, abenduaren 24rako, larunbaterako, Getxo Igeriketa Waterpolo klubak, Getxo Kirolak-en laguntzarekin, Getxoko Gabonetako VII. Itsas Lasterketa antolatu du, Ereagako hondartzaren eta Portu Zaharraren artean. Hori 300 metrokoa izango da eta 12:00etan hasiko da, absolutu eta beteranoen (1966an baino lehen jaiotako pertsonak) kategorietan. Lehiaketaren oinarriak eta izen-ematea [www.getxoiv.com](http://www.getxoiv.com) webgunean.



### XXXV. Andra Mariko Krosa

Itxas Argia elkarteak Andra Mariko XXXV. Krosa antolatu du iganderako, abenduaren 25erako, 11:00etan hasita. Izaera herrikoa duen lasterketa 8,8km-koa izango da eta irteera eta muga Andra Mariko kiroldegian izango da. Ordu erdi lehenago, 10:30ean, 2003tik aurrera jaiotako haurrentzat 2,5 km-ko lasterketa izango da. Izen-ematea: [www.itxas-argia.com](http://www.itxas-argia.com), elkartearen Facebook-ean edo Kantxa Kirol Modan.

## XXVI. Eskubaloi Saria, Gobelan

XXVI. Eskubaloi Saria-Getxoko Udala jokatu da ostiral honetan, hilak 23, Gobelako udal kiroldegian, Romo Eskubaloi Taldeak antolatuta, Getxo Kirolak-en laguntzarekin.

Gabonetako ohiko torneo horretan selekzio nafarrak izango dira parte hartuko dutenak, etxeko elkarteak osatzen duten taldeekin batera.

Partiduak 16:30ean hasiko dira, haurren kategoriakoekin, 17:45ean kadeteak arituko dira eta, azkenik, Nafarroako gazte selekzioak Lehen Mailako Romoren aurka jokatu du, 19:00etan. Partidak ikusteko sarriera dohainik da.



### Itziar Lopez de Uralde Oroi-lasterketaren irabazleak

Elena Loyok eta Hassam Oubaddik XXXIII. Itziar López de Uralde Oroi-lasterketa irabazi zuten iragan igandean, abenduak 18. 1.328 atletak hartu zuten parte proban. Alimco-Runningizeko atletak, 30:48 denborarekin, errekorra (31 minuturen gainetik) gainditu zuen eta Majda Maayoufi minutu bat baino gehiago atera zion. Oubaddi (R.Sociedad), 28:01rekin, 6 segundoko aldea atera zion Hamid Ben Daoudi.

## Ilargi García, urrea Euskadiko txapelketan

Ilargi García urrezko domina eskuratu du Euskadiko Taekwondo Txapelketan, -57 kg-ko maila absolutuan. Txur-dinagako kiroldegian jokatu zen txapelketa pasa den asteburuan. Getxotarrak nagusitasun osoz irabazi zuen (12-1), eta garaipen horri esker zuzenean sailkatzea lortu du Espainiako Txapelketa Absoluturako. 2017ko lehen hilabeteetan jokatu da. Euskadikoarekin bestalde, amaitutzat eman dute urtea Ilargi eta Oihane ahizpek, bakoitza bere kategorian (senior eta junior) sendotuta eta 2017an garaipen berriak lortzeko itxaropena dute.

